

Euskalkiak, ahozkorako bakarrik

PATXI GOENAGAREN BERBALDIA. Hizkuntza Politikorako sailburuordeak 'Euskara batua bai. Euskalkiak?' berbaldia emon eban eguen gauean, BBK-EGUNKARIA Erreportaje Lehiaketearen sari banaketan

Asier Iturriagaetxebarria

Euskalkiak eta euskera batuaren artean egon daitekeen hartu-emonaren ganean egin eban berba, eguen gauean, Patxi Goenaga Hizkuntza Politikarako sailburuordeak eta euskaltzainak. BBK-EGUNKARIA Bigarren Erreportaje Lehiaketearen sari banaketea egin zala-eta, *Euskara batua bai. Euskalkiak?* berbaldia eskaini eban. Aspaldian gizartean bizi-bizi dagoen eztabaidea da euskalkien ganekoa, eta Euskal Herrian euskereagaz zerikusia daukien gaiakin jazoten dan legez, hemen be bakotzak bere eritxia dauka. Goenagak esan eban, euskalkiak bultzatu beharrekoak dira, baina argi itxiaz euskara batua dala nagusia, eta batua izan behar dala idatzirako eredua. Euskalkiak erabiltea ondo deritxo Hizkuntza Politikarako sailburuordeak, baina ahozkoan bakarrik.

Patxi Goenagak argi itxi eban berak ez ebalu inoren izenean berba egin, ez Eusko Jaurlaritzarenean, ez Euskaltzaindiarenean. Eguen gaueko berbaldian esandakoak bere eritxiak ziran. Halandabe, Eusko Jaurlaritzako hainbat lagun izan ziran ikusleen artean: Jean Haritxelhar lehendakaria, Xabier Kintana idazkaria eta Peio Salaburu euskaltzaina. Horreez ganera, beste aurpegi ezagun batzuk be izan ziran BBK-k Bilbon daukan egoitzako areto nagusian: Iñaki Uria EGUNKARIAKO kontseilari ordezkaria, Jon Manzisidor BBKko kanpo harremanetarako arduraduna, Josu Urrutikoe-txea Batasuneko legebiltzarkidea eta Txutxi Ariznabarreta LABeko komunikazio arduraduna, besteak beste.

Patxi Goenagak azaldu eban, bera ez dago euskalkien erabileraren aurka, «konplementarioak» izan behar dirala aitatu eban. Baina Hizkuntza Politikarako sailburuordearen ustean, ondo jakin behar da bereizten noiz eta zertarako erabili behar diran euskalkiak. «Eus-

kalkia ezin da izan euskera batuaren ordezkia. Izatekotan be, banaketa konplementarioan egon beharko leukie».

Euskera batua idatzirako eredurako sortu zala gogoratu eban Goenagak. «Pentsau leike, hortaz, euskalkia ahozko eredurako dala baliagarria». Halandabe, batua ahozkoan erabili daitekeala esan eban, eta euskalkia idatzian, baina kasu jakin batzuetan. «Idatzirako erabili ezkerro, ahozkotik hur diran edo holan aurkeztu nahi diran testuetarako gordeko neuke euskalkia».

Ahozkotik hurren dagoen euskalkiaren alde

Behin euskalkia ahozkorako bakarrik dala argudiatuta, euskalkien kalidadearen inguruan jardun eban Hizkuntza Politikarako sailburuordeak eta euskaltzainak. «Ahozkotik hurren dagoen euskalkia erabili behar da. Ahozko hizkereak daukan bizitasuna, kolorea, eta abar jasoten dakiena». Izan be, aspaldian euskera batuari egiten jakon kritikea da euskaldun zaharrak kanpoko berbeta legez hartzen dauela. Goenagaren ustez, euskera batua «gero eta erosoagoa» egin behar dogu. Holan, euskera batua euskalkietara gero eta gehiago hurreratzen dagoela azpimarratu eban, baina kontrako joerea be, euskalkiak batura gerturatzen doazela, hain zuzen, jazoten dala gogoratu eban.

Ganera, Koldo Zuazok «Mar-teko euskerea» deitzen eban arazoa konpentzeko, batuan egon daitekeala urtenbidea deritxo Goenagak: «Euskalkia battez be ahozkorako bada, eredu estandarrean idatzitakoa zelan ahozkatu beharko litzatekeen edo zelan ahozkoatu leiteken erakusten saiatu beharko genduke. Hain gaxa da *etxea* idazten danetik, tokian tokiko usadioaren arabera, *etxia*, *itxia*, *etxie* ahozkatzea?».

Hasierako premisatik abiatuz, Goenagak ondo ikusten dau Bizkaia Irratian euskalkia era-



LUIS JAUREGIALTZO / ARGAZKI PRESS

HIZLARIA. Euskalkiak eta euskera batua «osagarriak» izan behar direla esan eban Patxi Goenagak bere berbaldian.



LUIS JAUREGIALTZO

BABESA. Euskaltzaindiko hainbat kide izan ziran Goenagaren hitzaldia entzuten: Jean Haritxelhar lehendakaria, Xabier Kintana idazkaria eta Peio Salaburu euskaltzaina.

biltea, ahozko komunikabidea dalako. Ganera, orain dala gitxi Bizkaia Irratiak eta Labayruk kaleratutako Estilo Liburua «tresna egokia» dala esan eban.

Komunikabideak eta euskalkiak

EGUNKARIAk kaleratzen dauen *Bizkaia* gehigarriaz ez dauka eritxi bera Goenagak: «*Bizkaia*ko orrietan be euskara batuan joan beharrekoak nagusi izan beharko leukie, nire ustez. Baina horreen parean, beharbada, bizkaiera garbian edo tradizioan

idatzitako zenbait kontu be sar leikez. Gauzak horrela planteatuta, EGUNKARIAk be helburu diktikoa izango leuke, ahozkoaren lagungarri eta aberasgarri izango litzatekeelako». Izan be, Hizkuntza Politikarako sailburuordearen ustean, Egunkariako arduradunek planteatu behar dabe ea alfabetatzeko tresna dan edo dagoeneko alfabetatuentzako dan. Hau da, irakurlea alfabetatu gabea bada, eredu batua izan beharko zala pentsetan dau Goenagak.

ESANAK

PATXI GOENAGA

(Hizkuntza Politikorako sailburuordea eta euskaltzaina)

«Idatzirako erabili ezkerro, ahozkotik hur diran testuetarako gordeko neuke euskalkia»

«Ahozko hizkerearen bizitasuna eta kolorea jasoten dakien euskalkia erabili behar da»

«Hain gaxa da *etxea* idazten danetik, tokian tokiko usadioen arabera, *etxia*, *etxie* ahozkatzea?»

«EGUNKARIAren Bizkaia-ko orrietan euskara batuan joan beharrekoak nagusi izan behar leukie»

BILBOko UDALA AYTO. DE BILBAO

2002 eko DIRULAGUNTZAK

Bilboko Udalak, 2002, urtean bertoko sail eta zerbitzuek emango dituzten dirulaguntzetarako deialdia onartu du. Eskabideak 2002 eko martxoaren 11tik apirilaren 19ra aurkeztu beharko dira Erregistro Orokorrean edola Barrutietako Udaltegiatako erregistroetan.

Eskabidearekin batera nahitaez aurkeztu beharko dira Dirulaguntzak emateko Arautegiaren 8. artikuluan adierazitako dokumentuak.